



## **2017ko ekitaldian herriko elkarteek kultur eta kirol ekintzak egiteko udal diru-laguntzen deialdia eta oinarriak**

### **MARKINA-XEMEINGO UDALA** **2017ko ekitaldian herriko elkarteek kultur eta kirol ekintzak egiteko udal diru-laguntzen deialdia eta oinarriak**

Markina-Xemeingo Udalaren 2016ko irailaren 20eko Tokiko Gobernu-Batzarrak, 2017ko ekitaldian herriko elkarteek kultur eta kirol ekintzak egiteko udal diru-laguntzak eskatu eta emateko modua arautzeko deialdi eta oinarri hauek onartzea erabaki zuen, egungo legediak emandako ahalmenez baliatuz, eta bereziki 7/85 Legearen 21. artikulua, Tokiko Ogasunen Legearen Testu Bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/04 legeko 185. eta 186. artikuluekin erlazionatuta; eta, beste aldetik, Bizkaiko Tokiko Entitateen Aurrekontuen 10/03 AFaren 41. artikulua kontuan hartuz:

#### **1.- XEDEA**

Oinarri hauen xedea da, 2017ko ekitaldian herriko elkarteek kultur eta kirol ekintzak egiteko udal diru-laguntzak norgehiagoka emateko arauak ezartzea.

Diruz laguntzekoak izango dira onuradunek egindako gastuak, betiere, diru-laguntzaren xedearekin lotura zuzena eta objektiboa baldin badute, eta 2015eko urriaren 22ko osoko bilkuran onartu zen Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean ezarritako baldintzen arabera.

Diru-laguntzetarako deialdi honen helburua elkartegintza eta herritarren parte hartzea sustatzea da. Markina-Xemeingo Udalaren baliabide propioz finantzatuko da.

#### **2.- ONURADUNAK**


Onuradunak izango dira 2015eko urriaren 22ko osoko bilkuran onartu zen diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten erakundeak.

Deialdi honetan parte hartzeko, onuradunen jarduketa-eremua Markina-Xemeingo udalerrria izango da.

#### **3.- DIRU-LAGUNTZAREN GEHIENEZKO ZENBATEKO OSOA. UDAL AURREKON PROIEKTUAREN ARABERA DEIALDI HONETARA BIDERATUKO DEN KREDITU**

Udal aurrekontu-proiektuaren arabera, deialdi honetara bideratuko den kreditua honako partida hauetan zordunduko da:

- a) Kultura sustatzeko partida: 3340 48100.



## 2017ko ekitaldian herriko elkarteek kultur eta kirol ekintzak egiteko udal diru-laguntzen deialdia eta oinarriak

b) Kirola sustatzeko eta bultzatzeko partida: 3410 48100.


Edozein kasutan, diru-laguntzak ematea ebazten den unean aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa dagoela egiaztatu beharko da.

Diru-laguntza hauek bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean ezarritako terminoetan, betiere.

### 4.- ESKAERAK AURKEZTEA

Eskaera Markina-Xemeingo Udaleko alkateari zuzenduko zaio eta Markina-Xemeingo Udaletxeko harreraren aurkeztuko da edo bestela Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako beste edozein bidetatik, eredu normalizatuaren arabera betiere, 2016ko abenduaren 31 baino lehen, eta honako agiri hauek erantsi beharko dira:

- Eskaera sinatzen duen pertsonaren NAN/IFZren fotokopia.
- Garatu nahi den programaren azalpena; azalpen horretan helburuak, parte-hartzaileak, datak, lekuak, biztanle-esparrua, metodologia eta abar zehaztuko dira.
- Diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu zehatza, aurreikusitako finantza-baliabideak zehazten dituen (kuotak, dohaintzak, beste erakunde batzuen diru-laguntzak...).
- Eskatzaileak Udalarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zorrak ordainduta dituelako adierazpena.
- Aurreko ekitaldian garatutako jardueri buruzko txostena, hala badagokio.
- Elkartearen Estatutuetan edo Zuzendaritza Batzordean izandako aldaketak jasotzen dituen akta, hala badagokio.
- Jardueraren helburuan irabazteko asmorik ez dagoelako adierazpena.
- Eskatzaileak diru-laguntzen Ordenantzaren 10. artikuluan aurreikusitako debekurik ez duelako adierazpena.
- Jarduerak hizkuntza normalizazioa barne hartzen duelako adierazpena.
- Eskatzaileak bere jardueran hizkuntza sexistarik ez erabiltzeko konpromisoa.



## 2017ko ekitaldian herriko elkarteek kultur eta kirol ekintzak egiteko udal diru-laguntzen deialdia eta oinarriak

Eskaera aurkezteak berekin dakar Oinarri hauetan azaltzen diren arau guztiak onartzea; halaber, 2015eko urriaren 22ko osoko bilkuran onartu zen diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrekoak.

Aurkeztutako dokumentazioa osatugabea bada edo oinarri hauetan eskatzen diren baldintzak betetzen ez baditu, gehienez 10 eguneko epean akatsak konpondu edo beharrezko agiriak aurkeztu beharko dira, eta hala egiten ez bada, eskaerari uko egin zaiola ulertuko da.

### 5.- ATZERA BOTATZEA

Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean ezarritako arrazoiez gain, ezin izango dute diru-laguntzarik jaso, eskabideak aurkezten diren datan Udal Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean ez dituzten entitateek edo aurretik emandako diru-laguntzen egiaztagiria aurkezten ez dituztenek. Egiaztagiria aurkezte hutsak ez du esan nahi aurkeztutako egiaztagiria ontzat ematen direnik.


Programa bat atzera botatzeko arrazoa izango dira, baita ere, delako programa horrek hizkuntza-normalizazioa barne ez hartzea eta hizkera ez-sexista erabiltzea.

### 6.- DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagokakoa izango da; prozedura horren arabera, diru-laguntzak emateko orduan, aurkeztutako eskaerak konparatzen dira, haien arteko hurrenkera erabaki ahal izateko.

### 7.- ESKABIDEAK BALORATZEKO IRIZPIDE ETA BALDINTZAK

IRIZPIDEAK	BALORATUKO DIREN EZINBESTEKO BALDINTZAK
EUSKARA	Ziurtagiri bat izatea, Udalarekin eta herritarrekin komunikazioa euskaraz izatea
BERDINTASUNA	Neska eta mutilak taldean izatea. Ekintza mixtoak antolatzea.
AUTOJESTIOA	Taldearen aurrekontua. Jardueraren kostua eta eskatzen dan diru-laguntzaren arteko erlazioa (%). Finantzabideak bilatzeko gaitasuna.
PARTE HARTZEA	Partaidetza eta lankidetzeta: herriko beste elkarte batzuekin lankidetzan aritzea eta udal jarduerak antolatzen laguntzea.
GAZTEEN ARTEAN KULTURA ETA KIROLA BULTZATZEA	Eskola izatea. Egitarauan garrantzi handia ematea gazteentzako propio antolatutako ekintzei.
SORMENA SUSTATZEA	Bakoitzak (ume, gazte, heldu zein nagusi) barruan duen irudimena ekintza bihurtzeko gaitasuna, edozein disziplinan.
ANIZTASUNA	Aniztasunaren tratamendua. Etorrinak gizarteratzeko ekintzak barne hartzea.
PROGRAMAREN EDUKIA	Helburuak. Balioak bultzatzeko jarduerak barne hartzea. Ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak. Elementu berritzaileak. Programaren jarraipena



## 2017ko ekitaldian herriko elkarteek kultur eta kirol ekintzak egiteko udal diru-laguntzen deialdia eta oinarriak

	eta egonkortasuna. Gizarte interesa. Eragin eremua (antolakuntza eta balizko hartzaileak).
AURREKO URTEETAKO EGITARAU ETA BALANTZEEN AZTERKETA	Prozedura bideratuko duen organoaren balorazioa, eskatzaileek aurreko urteetan burututako egitaraua eta justifikaziorako aurkeztutako balantzea aztertu eta gero egitekoa.

### 8.- PROZEDURAREN JARRAIPENA

Prozedura bideratuko duen batzorde bat osatuko da, Alkateak eta arloan arloko zinegotziekin.

### 9.- DIRU-LAGUNTZAREN EBAZPENA ETA ORDAINKETA

Prozedura bideratuko duen batzordeak 2017ko otsailaren 28ra arteko epea izango du diru-laguntzak ebazteko.

Diru-laguntzak onartutakoan, talde/elkarte onuradunei idatzi bana bidaliko zaie diru-laguntza noiz eta nola jasoko duten adierazten.

### 10.- JUSTIFIKATZEA

2017ko abenduaren 31 da jasotako diru-laguntzaren justifikazioa aurkezteko epemuga.

Diru-laguntzak justifikatzeko eredu normalizatuarekin batera, aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau da:

- Programak izandako garapenaren laburpen txostena eta helburuen ebaluazioa.
- 2017ko ekitaldiko Sarrera eta Gastuen Balantzea, beste instituzio batzuetatik jasotako diru-laguntzak barne.
- Gastu guztien ordainagiriak edota fakturak.
- Editatu diren karteak, liburuxkek eta gainerako publizitateak, Udala babesle izan dela agertu beharko dute.

### 11.- ARAU-HAUSTEAK, ZIGORRAK ETA ITZULTZEAK

Arau-haustek egiteari, Zehapenak ezartzeari eta Dirua itzultzeko Kausak eta Prozedurari dagokion guztia 2015eko urriaren 22ko osoko bilkuran onartutako Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean aurreikusitakoaren arabera arautuko da.

### 12.- ARAUBIDE JURIDIKOA



## 2017ko ekitaldian herriko elkarteek kultur eta kirol ekintzak egiteko udal diru-laguntzen deialdia eta oinarriak

---

Oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztian 2015eko urriaren 22ko osoko bilkuran osoko bilkuran onartutako Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

Erabaki hau ohiko diru-laguntza onuradunei eta udaleko ekonomia arloari jakinaraztea.

### *Lege oharrak*

- 7/85 Legea, 21.artikulua.

- Martxoaren 5eko 2/04 Legea, Ogasun Lokalen Legearen Testu Bateginaren 185. eta 186.artikuluak.

- 10/03 Legea, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko FAren 41. artikulua.

MARKINA-XEMEINen, bi mila eta hamaseiko irailaren bian.



**2017ko ekitaldian herriko elkarteek kultur eta kirol ekintzak egiteko udal diru-laguntzen deialdia eta oinarriak**

## DIRU-LAGUNTZA ESKATZEKO ORRIA


ESKATZAILEAREN DATUAK			
IFZ	ELKARTEAREN IZENA		
JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA			
		PK	
E-MAIL	TLF.	WEB	

ORDEZKARIAREN DATUAK			
IFZ/NIF	IZEN-ABIZENAK		
ELKARTEAN DUEN KARGUA			
E-MAIL		TLF.	

BANKU HELBIDERATZEA EGITEKO DATUAK					
K/Karen TITULARRA					
BIC	IBAN	ERAKUNDEA	SUKURTS. ZKIA	KD	KONTU ZKIA


Eskabide hau sinatuta baimena ematen zaio Markina-Xemeingo Udalarari Gizarte Segurantzaren eta Ogasunaren ziurtagiriak eskatzeko, **Diru-Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 20. artikulua**k ezartzen dituen ondorioetarako.

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta EAeko Parlamentuaren 2/2004 Legeak ezarritakoa betetzeko, jakinarazten dizugu zure datuak fitxategi batean sartuko direla, diru-laguntzen deialdi hau eta deialdi honekin zerikusia duen beste edozein administrazio espediente kudeatzeko. Fitxeroaren jabea Markina-Xemeingo Udala da eta datu horiek erabili, zuzendu, ezabatu eta aurkaratzeko eskubidea baliatu ahal duzu.



**2017ko ekitaldian herriko elkarteek kultur eta kirol ekintzak egiteko udal diru-laguntzen deialdia eta oinarriak**

<b>PROIEKTUAREN DATUAK</b>	
<b>PROIEKTUAREN IZENA</b>	
<b>SARRERAK</b>	
ESKATZAILEAREN EKARPENA	
DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOA	
Estatua	
Eusko Jaurlaritza	
Bizkaiko Foru Aldundia	
Markina-Xemeingo Udala	
Beste batzuk	
JARDUERAREN SARRERAK	
BESTE SARRERA BATZUK	
1.-	
2.-	
3.-	
4.-	
5.-	
6.-	
7.-	
8.-	
9.-	
10.-	
<b>GUZTIRA</b>	



**2017ko ekitaldian herriko elkarteek kultur eta kirol ekintzak egiteko udal diru-laguntzen deialdia eta oinarriak**

---

<b>GASTUAK</b>	
1.-	
2.-	
3.-	
4.-	
5.-	
6.-	
7.-	
8.-	
9.-	
10.-	
11.-	
12.-	
13.-	
14.-	
15.-	
16.-	
17.-	
18.-	
19.-	
20.-	
25.-	
	<b>GUZTIRA</b>

- ***Gastuak, jarduera bakoitzeko zehaztuko dira. Gastu denak jasotzeko beste lekurik ez badago, eranskina egin ahal zaio, baina guztira gelaxkan zenbateko osoa jarri beharko da.***





## 2017ko ekitaldian herriko elkarteek kultur eta kirol ekintzak egiteko udal diru-laguntzen deialdia eta oinarriak

### ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA (Markatu x batekin)

#### **Bestelako diru-laguntzen inguruan**

- Eskatzaileak adierazten du proiektu hau egiteko ez diola beste diru-laguntzarik eskatu beste erakunde publiko edo pribatu bati.
- Eskatzaileak adierazten du proiektu hau egiteko aurreko honako erakundeari/ei proiektu berdina garatzeko diru-laguntza eskatu dio/ela eta ez beste inori.

Zein erakunderi	zertarako	zenbat

#### **Diru-laguntza jasotzeko debekuen inguruan**


- Eskatzaileak adierazten du ez dagoela onuraduna izateko ezein debekutan sartuta.

#### **Gizarte Segurantzaren eta Ogasunaren inguruan**

- Eskatzaileak adierazten du eguneratuta dagoela eta ez duela inolako zorrik udalarekin ez Herri Ogasunarekin ezta Gizarte Segurantzarekin ere.

#### **Diru-laguntza jasotzearekin batera, hartzen diren konpromisoak**

- Egitasmoak eratorritako erantzukizunak bere gain hartzea
- Behar diren baimenak lortzea
- Egitasmoa garatzen ari dela gertatzen diren gorabehera guztiak udalari jakinaraztea, gertatu bezain laster
- Dirua gastatzen ez bada, diru-laguntza itzultzea



## 2017ko ekitaldian herriko elkarteek kultur eta kirol ekintzak egiteko udal diru-laguntzen deialdia eta oinarriak

---

- Helburuak funtsean aldatuz gero, diru-laguntza itzultzea
- Udalak ezarritako betekizun guztiei eta bete beharreko araei men egitea
- Udalarekin eta herritarrekin komunikazioa euskaraz izatea eta hizkuntza normalizazioa barne hartzea
- Neska eta mutilen arteko berdintasuna bilatzea, hizkuntza sexistarik ez erabiltzea eta genero ikuspegia barne hartzea
- Partaidetza eta lankidetzak sustatzea eta, ondorioz, herriko beste elkarte batzuekin lankidetzan aritzea eta udal jarduerak antolatzen laguntzea
- Eskola izatea eta egitarauan garrantzi handia ematea gazteentzako propio antolatutako ekintzei
- Sormena (ume, gazte, heldu zein nagusia) sustatzea
- Aniztasuna sustatzea eta etorkinak gizarteratzeko jarduerak barne hartzea
- Balioak bultzatzeko jarduerak barne hartzea
- Jardueraren helburuan irabazteko asmorik ez izatea

### **AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA (Markatu x batekin)**

- Diru-laguntza eskabide normalizatua
- NANaren fotokopia (eskaera norbanako batek egin bada) edo IKZrena (erakunde batek egin bada).
- Identifikazio Fiskaleko kodearen fotokopia
- Kontuaren titularitatea egiaztatzen duen ziurtagiria
- Proiektuaren deskripzioa, honako hauek osatuko dutenak: azalpen-memoria, proiektua osatzen duten jarduerak eta lortu nahi diren helburuak eta proiektuak barne hartzen dituen ekintzak non eta noiz egingo diren.
- Aurrekontu zehaztua: diru-sarrerak eta gastuak. Gastuei dagokienez, diru-laguntza eskatu duenaren izenean dauden fakturen bidez egiaztatutako transakzio ekonomiko bat dakartenak baino ez dira onartuko, eta ez eskatzailea ez den beste pertsona edo erakunde batek ordaindutakoak.



## 2017ko ekitaldian herriko elkarteek kultur eta kirol ekintzak egiteko udal diru-laguntzen deialdia eta oinarriak

---

Aurreko ekitaldian garatutako jardueri buruzko txostena, hala badagokio

Markina-Xemeinen, 2016eko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_(e)an.

Izen-abizenak  
Sin.